

**NOLA JARRI ABIAN, PAUSOZ
PAUSO, IKASKIDEEN ARTEKO
ESKOLA-BITARTEKARITZAKO
PROGRAMA BAT**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA





Gidaren egilea:

GEUZ
Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa

Argitaratzailea

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saila

Testuak

Lucia Gorbeña Etxebarria
Carlos Romera Anton

Diseinua eta maketazioa

Iñigo Romera

Itzulpena

Lurdes Amundarain

Testuen ©

Egileak

Edizio honen ©

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saila

AURKIBIDEA.

Aurkezpena.	4
1. Eskola-elkarbizitza: esku hartzeko ildoak eta programak.	5
2. Eskola-elkarbizitza.	7
2.1. Definizioa eta helburuak.	7
2.2. Programa-motak.	8
2.3. Heziketa-printzipioak eta oinarriak.	10
2.4. Bitartekaritza erabiltzeko moduko gatazkak.	11
3. Ikaskideen arteko bitartekaritza-programa bat inplementatzeko faseak.	12
3.1. Ikastetxearen konpromisoa eta talde koordinatzailearen osaketa.	12
3.2. Programaren eta inplementazio-prozesuaren diseinua.	13
3.3. Bitartekari-taldearen hautaketa.	14
3.4. Bitartekari-taldearen prestakuntza.	19
3.5. Programaren hedapena.	20
3.6. Bitartekaritza-zerbitzuaren antolaketa.	21
3.7. Koordinazioa eta jarraipena.	24
3.8. Ebaluazioa.	27
4. Gehiago jakiteko baliabideak.	29

AURKEZPENA.

Gida honen argitalpena, Geuzek (Gatazkak Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa) egina, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazioak finantzatu du, Euskadin Giza Eskubide, Bizikidetzaren Demokratiko eta Indarkeriaren Deslegitimazioaren proiektuak garatzen dituzten erakunde eta gizarte mugimenduei zuzendutako laguntzen bidez.

Gidak, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, ikaskideen arteko bitartekaritza-programen sorkuntza sustatzea eta erraztea du helburu. Eskola-elkarbizitzak hainbat azterketatan erakutsi du eskola esparruan sortzen diren gatazka ugari lankidetzaren bidez eta era baketsuan lantzeko eraginkortasuna. Gainera, bitartekaritzak izugarritzko ahalmena du hezteko, bai ikastetxeko bitartekari-taldeko ikasleentzat, eta bai bere gatazkak ebazteko bitartekaritza erabiltzen duenarentzat; eta

elkarbizitza positiboaren eredua bultzatzen du, Bake Kulturaren printzipio eta baloreetan oinarritua.

Dokumentuan zehar, ikaskideen arteko eskola-bitartekaritza abian jartzeko jarraitu beharreko pausoak edo faseak zehaztuko dira, eta baita egin beharreko ekintza zehatzak eta behar diren baliabideak ere.

Gida hau lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako irakasleei, zuzendaritza-taldeei eta hezkuntza alorreko beste profesional batzuei zuzendua dago. Azken batean, egunez egun, pertsonak hezteko eta bake kulturaren baloreetan oinarritutako gizartearen etorkizuna eraikitzeko lan eskergan, duten onena ematen duten guztiei.

Hauei guztiei, eskerririk asko eguneroko lanarengatik.



1. ESKOLA-ELKARBIZITZA: ESKU HARTZEKO ILDOAK ETA PROGRAMAK.

XXI. mendeko hezitzaileen erronkarik garrantzitsuenetako bat, geletan indarkeria prebenitzea eta eguneroko gatazkak ebaztea baino harago, elkarbizitzarako eta bakerako hezte da. Erronka hau hiritarrak bake-kulturaren balore giltzarrietan oinarrituta hezte lortzean zentratzen da: ez indarkeria, elkarrizketa, gatazken ebazpen baketsua, aniztasunarekiko errespetua, demokrazia, elkartasuna, tolerantzia eta justizia.

Helburu honekin, elkarbizitzarako heziketa, hain zuzen, gero eta ikastetxe gehiagok egiten dute eta abian jartzen dute eskola-elkarbizitzarako plan bat, bere hezkuntza-proiektuaren elementu giltzarri gisa.

Elkarbizitza-plan hauetan sartzen diren programa, estrategia edo ekintzek oso ikuspegi eta eduki anitzak dituzte. Baina,

laburbilduta, 4 taldetan sailka ditzakegu:

Programa kurrikularrak.

Era honetako programen helburua da ikasleek elkarbizitzarako eta gatazkak ebazteko baloreak, jarrerak edo trebetasunak eskuratzea edo garatzea. Normalean, ikasgelan izaera esperimentaleko jarduerak edo dinamikak egitea eskatzen dute. Besteak beste, programa hauek nabarmentzen dira: gizarte trebetasunak, adimen emozionala, gatazken ebazpena, jolas kooperatiboak, kultura artekotasuna, dilema moralak.

Gatazkak elkarlanean ebazteko programa edo estrategiak.

Era honetako programa edo estrategiek eskolako elkarbizitzaren bizipen alderdia azpimarratzen dute, eta hezkuntza-komunitateko kideei eguneroko gatazkei

elkarlanean eta era baketsuan heltzen laguntzen diete. Hauen artean ezagunenak bitartekaritza-programak dira. Alabaina, ikastetxe batean egunero izaten den gatazka-aniztasunak beste prozesu edo metodologia batzuen beharra eskatzen du, hala nola, negoziazio-protokoloak, elkarrizketa hezigarriak, kontratuak edo gela-batzarrak.

Diziplina positibo edo demokratikoaren programak.

Araudia funtsezko alderdia da elkarbizitzaren arauketan eta ikasketan. Zigor-diziplinako eredu tradizionalen aurrean, diziplina positiboaren ikuspuntuak ikasleen garapen eta autonomia morala bultzatu nahi du, ikasgelan adostutako arau-sistema baten bidez eta bete ezean zigorren ordean erabiliko diren ondorio hezigarrien bidez.

Parte hartzeko estrategiak edo mekanismoak.

Ikastetxeko bizitzan hezkuntza-komunitateko partaideen parte hartzea helburu duten estrategiak anitzak dira. Batzuek bertako kolektibo desberdinetako (irakasleak, familiak, ikasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak...) ordezkariak sartzea eskatzen dute talde edo organo egituratuetan, esate baterako, eskola kontseilua, elkarbizitzaren behatokia, elkarbizitza-batzordea, edota ikasle ordezkarien taldeak. Beste batzuek elkarbizitzarekin zerikusia duten zereginak edo funtzioak delegatzea eskatzen dute, hala nola, jarduerak antolatzea familiek, ikasle laguntzaileen taldeak sortzea edota gelako batzarrak ikasleek kudeatzea. Nolanahi ere, ekimen hauen helburua da kideen eskola-erakundearekiko lotura eta atxikimendua areagotzea.



2. ESKOLA-BITARTEKARITZA.

2.1. Definizioa eta helburuak.

Bitartekaritza gatazkak ebazteko metodo egituratua da; bertan, hirugarren alde batek gatazkan dauden aldeei laguntzen die haien kezka entzunez, komunikazioa erraztuz eta negoziatzen lagunduz. Bitartekariak aldeei irabazi-irabazi irtenbideak sorrarazten ahalegintzen dira. Nahiz eta bitartekariak prozesuaren ardura hartu, aldeek gatazkaren irtenbideari buruzko erabakiak hartzeko gaitasunari eusten diote.

Eskola-bitartekaritzako programa batek zera eskatzen du: ikastetxean bitartekaritza-zerbitzu bat sortzea eta garatzea, hezkuntza-komunitatea osatzen duten talde desberdinen (ikasleak, irakasleak, gurasoak...) gatazkak konpontzeko.

- Bitartekaritza prozesu bat da eta bere helburua zera da, inplikaturik dauden pertsonen interes eta beharretan oinarrituta konpontzea gatazka.
- 3. inpartzial baten esku-hartzea eskatzen du, bitartekaria hain zuzen. Honek aldeei komunikazioa berrezartzen laguntzen die, elkar ulertzen eta elkarrekin lan egiten, bientzat mesedegarria den akordioa lortu arte.
- Aldeek boluntarioki onartzen dute bitartekariaren partehartzea irtenbideak bilatzeko garaian.
- Beste tresna bat da elkarbizitza positibo eta baketsuaren eredu baten zerbitzura.
- Elkarbizitza-programa zabalago baten esparruan ikusi behar da.
- Izaera prebentiboa eta hezigarria (eraldagarria) du.

Eskola-bitartekaritzako programa baten helburu zehatza zera da: eskolako komunitateko kideen artean dauden hainbat gatazkari erreparatzea; gatazka hauek, arrazoiren batengatik, protagonistek eurek ezin izan dituzte konpondu, ezta bitartekaritza informala bidez ere, eta beharrezkotzat ikusten da bitartekaritza formal baten bidez esku hartzea. Eta, gainera, bere helburuen artean hauek izaten dira:

- Edozein arrazoi dela-eta, inplikaturik aldeek konpondu ezin izan dituzten gatazkei ekitea.
- Ikasleen partehartzea onartu arazoak konpontzerakoan.
- Gatazkak ebazteko trebetasunak irakastea programan inplikaturik taldeei.

- Elkarbizitza hobetu.
- Indarkeria mailak murriztu.

Lankideen edo berdinen arteko bitartekaritza-programak elkarbizitza baketsuaren eredu baten zerbitzura dauden tresnak dira eta elkarbizitza-eredu hori partehartzean, lankidetzan eta elkarrizketan oinarritua dago. Eskola-bitartekaritzaren zerbitzuak ikastetxeetan integratuta geratzen dira eta ikasleak edo irakasleak berak dira koordinatzen eta zuzentzen dutenak. Eskola-bitartekaritzako programa bat asko alda daiteke ikastetxe batetik bestera, bakoitzaren behar eta baliabideen arabera. Komenigarria da eskola bakoitzerako diseinu berezia egitea.

2.2. Programa-motak.

Gaur egun, modu desberdinak daude ikastetxeetan bitartekaritza ulertzeko eta aplikatzeko. Lehenik eta behin, bitartekariaren zeregina hartzen duen pertsonaren eta gatazkako aldean eta bitartekariaren arteko harremanaren arabera, eredu bertikalaz edo horizontalaz hitz egingo dugu. Bigarrenik, "jolastokiko eredua" edo "eredu bideratua" bereiz daiteke, aldeak bitartekaritzara iristen diren moduaren eta prozesuaren garapena antolatzen den moduaren arabera.

1. Eredu bertikala: helduen aldetiko bitartekaritza.

Eskolan helduek egindako bitartekaritza da, normalean irakasle eta zuzendaritza-taldeko kideek egindakoa, bitartekaritza bertikala izena ere hartzen duena, agian, aplikatzen errazena. Pertsona hauek prestakuntza berezia jasotzen dute bitartekaritza alorrean, eta prozesua ikastetxean duten zeregin hezigarriko beste tresna bat gehiago bailitzan erabiltzen dute. Bitartekari lanean, helduek ikasleei aholkuak ematen dizkiete talde bakoitzak arazoaz dituen pertzepzioa eta sentimenduak aztertze prozesuan, eta baita balizko irtenbideak bilatzen eta bi aldean beharrak ondoen asebeteko dituzten akordioak egiten ere.

2. Eredu horizontala: ikaskideen arteko bitartekaritza.

Bitartekaritza-programa hauen ezaugarri nagusia da gatazkan dauden aldean ikaskideak berak direla bitartekariak. Honela, bi ikasle badira gatazka dutenak bitartekariak ere ikasleak izango dira, eta gatazka ikasle baten eta irakasle baten artean sortzen bada, bitartekariak, era berean, ikasle bat eta irakasle bat izango dira. Bitartekari-taldea ikasleen artean, edota irakasleen artean hala behar bada, aukeratuko da; talde honek trebatze berezia jasoko du zeregin hau betetzeko.

3. Jolastokiko eredia.

Ikasleek gatazkaren bat dutenean atsedenaldira edo jangelan, une horretan bertan, jo dezakete adiskide bitartekari batengana laguntza eske. Bitartekaritza hau, izaera informala duena, une eta toki horretan bertan gertatuko da. Bitartekaritza mota hau lehen hezkuntzan egin ohi da. "Jolastokiko eredia" bertikala edo horizontala izan daiteke. Azken kasu honetan, ikasle bitartekariak jantzi bat eramaten dute (banda besoan, zapia,...) identifikatzeko, eta txandak antolatzen dira, egunero ikasle bitartekari batzuk bakarrik egongo direlarik "zerbitzuan".

4. Eredu bideratua.

Eredu deribatua, berezkoagoa bigarren hezkuntzan, esku-hartze formalagoa da, eta hainbat fase gertatzen dira, azkenean, ikastetxeko bitartekaritza-zerbitzuaren bidez lantzeko gatazka bat. Hasiera batean, gatazka irakasle batek, zuzendaritza-kide batek edo ikasle batek bideratuko du bitartekaritza-zerbitzura; jarraian, bitartekaritza-zerbitzuko koordinatzaileak bildu egingo dira, bakarka, gatazkako protagonistekin, informazioa jasotzeko eta bitartekaritzara jotzeko aukera eskaintzeko; aldeek bitartekaritza egitea onartuz gero, bitartekariak izendatuko dira kasurako eta bitartekaritza antolatuko da; handik egun batzuetara, bitartekaritza-prozesua garatuko da eta, azkenik, aurrerago, emaitzaren jarraipena eta ebaluazioa egingo da.

2.3. Heziketa-printzipioak eta oinarriak.

Bitartekaritza, gatazkak ebazteko prozesu gisa, bere funtzionamendu egokirako ezinbesteko diren printzipio multzo batean oinarritzen da.

- **Boluntariorotasuna.** Aldeek borondatez jotzen dute bitartekaritzara eta edozein momentutan erabaki dezakete uztea. Inor ezin da behartu hitz egitera, ezta gatazka lankidetzaren bidez konpontzera ere.
- **Erabakitzeke autonomia.** Aldeek gatazkari buruzko erabakiak hartzeko gaitasunari eusten diote. Bitartekariak ezin du inolako irtenbiderik ezarri, ez da epailea, ezta arbitroa ere.
- **Neutraltasuna eta inpartzialtasuna.** Bitartekaria ez da inoren alde jartzen eta ez du interesik inolako eratako emaitzetan.

- **Konfidentzialtasuna.** Prozesua isilpekoa da eta bitartekaritzan esandakoa ezin da errepikatu beste edozein forotan.

- **Fede ona.** Aldeek bitartekaritzara jotzen dute euren helburua, benetan, gatazka ebaztea delako.

Eskolaren esparruan, ikaskideen arteko bitartekaritza-programa batek hezkuntza izaera eta oinarria du. Gatazka bakoitza ikasteko aukera bat da. Bitartekaritza **errespetu, elkarrizketa eta elkarrekin erabakiak hartzeko ariketa bat** da; bertan, gatazkako alde protagonistek **erantzukizuna har dezaten** bultzatzen da.

Gainera, bitartekaritzaren esperientzia

hezigarria da, bertan elkarbizitza positiborako hainbat gaitasun sustatzen baitira:

- Nork bere burua ezagutzea.
- Hazkuntza pertsonala.
- Komunikazio eraginkorra.
- Erabakiak hartzeko gaitasuna eta berauekiko konpromisoa hartzekoa.
- Emozio indartsuen maneiu egokia.
- Enpatia.
- Gatazken ebazpen kolaboratzailea.

2.4. Bitartekaritza erabiltzeko moduko gatazkak.

Bitartekaritza tresna egokia da ikastetxeetan gertatzen diren gatazka askotarako, baina ez guztietarako.

Bitartekaritza erabiltzeko moduko gatazka mota aldatu egiten da ikastetxe batetik bestera, bakoitzak bere mugak ezartzen ditu bitartekaritza praktikan jartzeko garaian. Ikastetxe batzuetan bitartekaritza, bakar-bakarrik, ikasleen arteko gatazkak lantzeko erabiltzen da; beste batzuetan, berriz, bere erabilera irakasleak eta familiak inplikaturako gatazketara ere zabaltzen da.

Bitartekaritzarako gatazkarik egokienak pertsonarteko izaera dutenak dira, gai hauei buruzkoak, hain zuzen ere:

- Hondatu diren adiskidetasunak.
- Errespetu faltak.

- Zurrumurrak eta gaizki-ulertzeak.
- Helburu pertsonalak.
- Jolaserako espazioak.
- Bereizkeria edo zirikatzea.
- Baloreak.

Nolanahi ere, garrantzitsua da argi eta garbi mugatzea diziplinaren bidetik zuzendu behar diren egoera haiek, normalean, eskolako araudiaren urraketa dakartenak.

Gatazka bat ezingo da bitartekaritzaren bidez landu:

- Bitartekaritzaren printzipioak betetzen ez badira.
- Ikastetxeko araudiak zehazten duenean egoera diziplinaren bidetik zuzendu

behar dela.

- Botere desoreka handia dagoenean aldean artean, esate baterako, ikaskideen arteko tratatu txarren kasuan.
- Pertsonarteko gatazka ez denean, edota gaiak ez direnean negoziagarriak, adibidez, disrupzio egoerak ikasgelan.

3. IKASKIDEEN ARTEKO BITARTEKARITZA-PROGRAMA INPLEMENTATZEKO FASEAK.

3.1. Ikastetxearen konpromisoa eta talde koordinatzailearen osaketa.

Ikaskideen arteko bitartekaritza-programa ikastetxearen proiektu bat izan behar da; izan ere, bere diseinuak eta funtzionamenduak baliabide anitzak eta hezkuntza komunitateko sektore guztien lankidetzak eskaintzen ditu.

Lehen urratsa ikastetxearen konpromisoa lortzea da, zuzendaritza-taldearena, klaustroarena, eta ordezkaritza organo goren edo eskola kontseiluarena. Komenigarria da ikaskideen arteko bitartekaritza-programa bat inplementatzeko erabakia ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikotik sortzea, eta ikastetxeko kolektibo desberdinek babestea. Adostasun hau funtsezkoa da, horren baitan egongo baita programaren bideragarritasuna edo iraunkortasuna.

Fase honek hainbat bilera egitea eskatzen

du (orokorrak, lan-taldea edo ikastetxeak egoki jotzen duen modura), programaren inplementazioa burutzeko proposamena batera jartzeko eta egiteko erabakia hartzeko, ahal izanez gero, adostasunez edo, behintzat, inplikaturako pertsona gehienek babesarekin.

Bigarren urratsa programaren talde koordinatzailea izendatzea da. Koordinatzaile-taldeak bitartekaritza-programaren plangintza, martxan jartzea eta garapena zuzentzen eta kudeatzen du. Ikastetxeko proiektuaren motorra da epe ertain eta luzera planifikatzen du, eta egiten diren ekintza guztiak gainbegiratzen ditu. Komenigarria da koordinatzaile-taldeak astero denbora tarteak izatea, aurrez planifikatua, programari eskaintzeko. Talde hau osatu dezakete zuzendaritzako kide batek, ikastetxeko orientatzaileak,

elkarbizitzako batzordekideek, eta programan inplikaturako zikloetako irakasleek. Talde txikia, hiru eta sei kideren artean, eragingarriagoa da programaren koordinatzaile lanetarako.

Talde koordinatzailearen zereginak hauek dira:

- Bitartekaritza-programa diseinatu, kontuan izanda egin beharreko ekintzak, epeak eta pertsona arduradunak.
- Hezkuntza komunitateko talde guztien artean programa hedatzeko behar diren topaketak eta ekintzak planifikatu eta aurrera eraman.
- Bitartekarien hautaketa antolatu.
- Bitartekariak trebatzeko logistika koordinatu.
- Kasuen deribazio-sistema antolatu eta berrikusi.

- Bitartekaritzen garapena prestatu: ordutegiak, espazioak, bitartekarien izendapena, txandak, ...
- Ikasle bitartekariekin egin beharreko hamabosteroko jarraipen-bilerak zuzendu.
- Bitartekaritza-saio guztiak ondo erregistratzeko sistema eduki, eta behar diren datu estatistiko guztiak bildu.
- Urtean behin, gutxienez, ekitaldi bat egin bitartekarien lana goraipatzeko.
- Tarteka, eskola-komunitatearen artean bitartekaritza-programa zabaldu, bere hedapena bultzatzeko.
- Irakasleak jakinaren gainean eduki bitartekaritza-programaren eboluzioaz. Programa ebaluatu eta emaitzak zabaldu.

3.2. Programaren eta inplementazio prozesuaren diseinua.

Bitartekaritza-programaren diseinuak hasieran oinarrizko hainbat erabaki hartzea eskatzen du, eta egin beharreko zeregin eta ekintza bakoitza definitzea eta planifikatzea, baita horien ardura izango duten pertsonak, beharrezko baliabideak eta gauzatzeko kronograma ere.

Abiapuntutzat, talde koordinatzaileak zera erabaki behar du:

- Programaren **helburuak**, orokorrak eta zehatzak.
- Ikastetxeak inplementatuko duen bitartekaritzako **programa mota**, bertikala edo horizontala, eta "jolaslekuko" edo "bideratutako" eredua den. Azken alderdi honek lehen hezkuntzari eragiten dio, bigarren hezkuntzan ez baita "jolaslekuko" eredua

erabiltzen, bitartekaritza beti bideratua izaten da.

- **Nori zuzendua dagoen**, Bitartekaritza ikasleen arteko gatazketan egingo dugu?, zein ikasturtetakoekin?, ikasle eta irakasleen artean egingo da?, irakasleen artean?, irakasle eta familien artean?
- Bitartekaritza egingo den eta egingo ez den **gatazka motak**.

Bigarrenik, inplementazio-prozesua eta programaren antolaketa planifikatzeko, zehazki definitu behar da honako fase hauetako bakoitza: bitartekari-taldearen hautaketa eta trebakuntza, programaren hedapena, bitartekaritzaren logistikaren eta funtzionamenduaren antolaketa, jarraipena eta ebaluazioa.

Diseinu hau **idatzizko plan batean** zehaztuko da, aipatutako fase bakoitzean landu behar diren zeregin eta ekintza guztien xehetasunak emango ditu, baita bakoitzerako beharrezko baliabideak, pertsona arduradunak eta gauzatzeko epeak ere.

Gida honetako segidako orrietan zehaztu dira idatzizko planak jaso beharko lituzkeen bitartekaritza-programaren inplementazio-faseen ekintzak eta prozedurak.

3.3. Bitartekari-taldearen hautaketa.

Bitartekari-taldea egoki hautatzea funtsezkoa da. Bitartekari lana egiteaz gain, talde honek beste zeregin garrantzitsu batzuk beteko ditu, hala nola, programaren hedapena eta kasuak bertara bideratzea. Bitartekari ona izateko, komenigarria da zenbait gaitasun edo ezaugarri izatea, honako hauek, esate baterako:

- Lidergo ahalmena, bai positiboa edo bai negatiboa.
- Beren ikaskideek errespetatuak izatea eta besteei konfiantza ematea.
- Beste ikasle batzuei lagundu nahi izatea.
- Hizketarako erraztasuna.
- Pazientzia izatea eta lasaitasunari eustea.
- Umorea izatea.
- Iniziatiba izatea.

- Bitartekaritza-programarekin ikasturte osoan aritzeko konpromisoa hartzeko prest egotea.

Bitartekaritza-taldea eskolako aniztasuna (adina, generoa, kultura, naziotasuna...) islatuko duten ikasleek osatuko dute. Bitartekari kopurua ikastetxeko ikasle kopuruaren arabera, eta atsedenaldirako espazio kopuruaren arabera izango da. Komenigarria da ikasle bakoitza zerbitzuan astean behin bakarrik egoteko adina ikasle trebatzea.

Gomendatzen da ikasle bitartekarien kopuruak ez gaintzea ikasle guztien %10, are gehiago, ikastetxe handietan %5 nahikoa izan daiteke. Bitartekariak gehiegi izanez gero, gerta liteke ikasturtean zehar ia aukerarik ez izatea bitartekaritza egiteko; ondorioz, egoera honek dezente

frustrazioa eta atsekabea eragingo luke.

Ikasle gehiago aukeratu behar dira erdiko mailetatik. Honela, nahikoa bitartekari geratuko dira hurrengo ikasturtean, berriak aukeratu eta trebatu arte. Gainera, estrategia honek hautaketa eta prestakuntza bi urtean behin egiteko aukera ematen du, urtero egin ordez.

Ikasle bitartekarien hautaketa-prozesua arrakastaz osatzeko, fase batzuei jarraitzea proposatu nahi da:

1. Bitartekaritza-programaren aurkezpena ikasgeletan.

Tutoretza saio bat gutxienez behar da. Normalean, tutoreak aurkeztuko du programa ikasgelan, ikasle hautagaien izendapenaren aurreko pauso gisa.

Aurkezpen hau egiteko, gidoi hau proposatu nahi da:

A) Sarrera.

- Programaren deskribapena.
- Bitartekaritza-trebakuntzaren deskribapena.
- Ikasleentzat bitartekari izateak dituen onuren deskribapena.

Bitartekariak arazoak konpontzeko teknikak ikasten dituzte, gero lagunekin, etxean, etab. erabil ditzaketenak.

Bitartekariak ikastetxeko elkarbizitza hobea izan dadin laguntzen dute.

Bitartekariak bitartekaritzako trebakuntza berezi batean parte hartzen dute, eta ziurtagiri bat lortzen dute.

Bitartekariak beste ikasle batzuei arazoak modu eraikitzailean konpontzen laguntzen diete.

B) Eszenifikazioak.

- Ikasleen artean ohikoa den gatazka mota bat antzezteko rol-joko bat egin. Jokoa eztabaida batekin amaituko da, arazoa konpondu gabe, eta ikasleetako batek alde eginda. Taldean aztertu: a) zer gertatu da eta zergatik?, b) nola amaituko da gatazka hau?, eta c) zer egin zezakeen ikasle bakoitzak arazoa beste era batera konpontzeko?

Bigarren rol-jokoa egin gatazka berarekin. Oraingoan, bitartekari

- bikote batek aldeei arazoa konpontzen lagunduko die. Taldean aztertu: a) zer gertatu da eta zergatik?, b) nola bukatu da gatazka hau?, eta c) nola lagundu diete bitartekariak aldeei gatazka konpontzen?

C) Zer esan nahi du gatazka bitartekari izateak?

Zer behar da bitartekari ona izateko?

- Gauza berriak probatzea gustuko izatea.
- Beste ikaskide batzuei lagundu nahi izatea.
- Hizketarako erraztasuna izatea.
- Jasailea eta lasaia izatea, eta entzutea gogoko izatea.
- Errespetutsua izatea eta besteek zuregan konfiantza eduki ahal izatea.
- Programan ikasturte osoan zehar parte hartzeko konpromisoa hartzea

Zer egin behar du gatazka-bitartekariak?

- Bitartekaritza-trebakuntza berezi batean parte hartu.

- Jartzen zaizkion bitartekaritza-fitxak bete.
- Hamabost egunean behingo jarraipen-bileretara joan.
- Programako bitartekari lanetan ikasturte osoan jarraitu.

2. Hautagaien izendapena.

Hautagaien izendapenak pertsonen zerrenda bat emango digu eta, azkenean, horien artean aukeratuko da bitartekari-taldea. Izendapen hau hiru mekanismo desberdinen bidez egitea komeni da:

- Ikasleek izenda dezakete euren burua, boluntario gisa aurkeztuz bitartekari izateko.
- Ikasle bakoitzak bitartekari egokitzat jotzen dituen hiru kide proposatuko ditu.
- Tutore bakoitzak bere taldean hautagai egokitzat jotzen dituen ikasle batzuei proposatuko die bitartekari-taldeko partaide izatea.

Honela, hautagaien hiru zerrenda lortuko dira. Hiru zerrendetan edo bitan agertzen diren ikasle haiekin prozesua

jarraituko dugu, hurrengo fasea bakarkako elkarrizketak egitea izanik. Ikasle-talde honetako kopurua nahikoa bada, zerrenda bakar batean soilik agertzen direnak baztertu egingo ditugu.

3. Bakarkako elkarrizketak egin.

Bakarkako elkarrizketak erabilgarriak izango dira ikasle hautagaien motibazioa eta programarekiko konpromisoaren seriotasuna ezagutzeko.

Elkarrizketa hauek egiteko, galdera-sorta hau proposatu nahi dugu:

- *Gatazken bitartekari izan nahiko zenuke?, zergatik?*
- *Ikastetxeko ikasle asko ezagutzen dituzu?, zein beste jardueratan hartzen duzu parte?*
- *Ikasleren batzuekin gaizki konpontzen zara?, zergatik?, bada ikasleren bat bitartekari gisa berarekin lan egitea zaila litzatekeena?*
- *Bitartekaritza batean gertatzen dena sekretupean gordetzea oso garrantzitsua*

da, zergatik uste duzu?

- *Beste ikasle batzuek estutu zintzakete bitartekaritza batean zer gertatu den kontatzeko, nola jokatu zenuke, hori gertatuz gero?*
- *Bitartekari zereginengatik eskolaren bat galduz gero, beharrezkoa izango da egunean jartzea, prest zaude hori egiteko?, zer moduz zoaz ikasturte honetan?*
- *Bitartekari izateak esan nahi du beste ikasle batzuek eredutzat ikusiko zaituztela, zer esan nahi du horrek zuretzat?*

Gainera, elkarrizketa honetan hautagai bakoitzari jakinaraziko diogu, hautatuak izanez gero, ezinbestekoa izango dela gurasoen baimena, azkenik, bitartekari-taldearen zati bat eratzeko.

4. Bitartekarien hautaketa.

Hautagaien izendapenean eta elkarrizketetan lortutako emaitzen arabera, talde koordinatzaileak, azkenik, familiek baimena emanaz gero, bitartekari-taldea osatuko duten ikasleak aukeratuko ditu. Gainera, hautatua izan ez den ikasle bati elkarrizketa egin badiogu, informatu eta arrazoiak azaldu beharko dizkiogu.

5. Informazioa eta familien baimena.

Hautatutako ikasleen familiek baimendu egin behar dute beraren parte-hartzea, benetan, talde bitartekariko kide izateko. Horretarako, gutun bat bidaliko diegu gurasoei azalduz zer den bitartekaritza-programa, nola hautatu diren euren seme-alabak eta zer inplikazio dituen talde horretako partaide izateak. Gainera, dokumentu bat erantsiko dugu gurasoek baimen gisa sinatu eta ikastetxera bidal dezaten.

3.4. Bitartekari-taldearen prestakuntza.

Trebatzeko ikastaro eta material ugari dago bitartekari-taldearen prestakuntzarako. Erabilitako ikuspegia edo materiala alde batera utzita, garrantzitsua da prestakuntza emango duen pertsonak, ikastetxekoa bertakoa edota kanpoko profesional bat, esperientzia izatea bitartekaritzaren praktikan eta beste pertsona batzuk bitartekari izateko trebatzeko prozesuan.

Ikastetxe askok, lehen urtean, kanpoko aditu batengana jotzen dute. Hala ere, komenigarria da programaren talde koordinatzaileko kideek beharrezko tresnak eta trebetasunak eskuratzea euren kabuz emateko prestakuntza hau hurrengo urteetan. Ikastetxeak autonomo bihurtu behar du zeregin hauetan, eta ez egon kanpoko baliabideen menpe, programa handitzen eta hedatzen doan heinean.

Prestakuntza bitartekari-taldeko kide izango diren guztiei zuzendua da, talde koordinatzaileko partaide guztiei eta trebakuntza jasotzeko prest dauden ikastetxeko pertsona guztiei.

Prestakuntzak 16 ordu iraungo du gutxienez lehen hezkuntzan eta 18tik 20 ordura bigarren hezkuntzan. Bere edukiak gai hauek jaso beharko lituzke:

- 1. Gatazkarako sarrera: definizioa, alderi positiboak eta negatiboak, gatazka motak eta kausak, eta gatazkek ebazteko estiloak.
- 2. Gatazken bitartekaritza-prozesua: helburuak, printzipioak eta ezaugarriak.
- 3. Bitartekaritza egiteko moduko kasuak eta ezinezkoak.
- 4. Gatazkaren analisisa.
- 5. Komunikazio eraginkorreko teknikak: komunikazio-oztopoak, entzute aktiboa, mezu asertiboak, galdera egokiak...
- 6. Emozio indartsuak maneiatzeko teknikak.
- 7. Gatazken bitartekaritza-prozesua: faseak eta zereginak.
- 8. Bitartekaritza-kidetzak.
- 9. Bitartekaritza-prozesuan blokeoak gainditzeko estrategiak.
- 10. Bitartekariaren etika.
- 11. Programa ikastetxean inplementatzeko prozedura: bitartekariaren funtzioak eta erantzukizunak.

Trebakuntza ordu eta erdiko aurkezpen eta orientazio saio batekin hasiko da.

Komenigarria da prestakuntza bi ordu edo bi ordu eta erdiko saioetan banatzea, ahal bada, goizez. Prestakuntza-saioak ez dira egunero izan behar, tartekatu egin behar dira egun libreak utziz batzuen eta besteen artean; izan ere, ikasleek denbora behar baitute ikasitakoa barneratzeko. Azken saioa ikastetxeko eremutik kanpo egin daiteke larunbat goiz batean, eta bazkari batez edo festa batez bukatu "taldea sortzeko".

Amaitzean, prestakuntzan parte hartu dutenei prestakuntza egin izanaren diploma bat edo egiaztagiri bat banatuko zaie.

3.5. Programaren hedapena.

Eskola-komunitate osoak bitartekaritza-programaren funtzionamendua ezagut eta uler dezan, ezinbestekoa da beronen hedapen ona egitea. Gainera, ikastetxeko edozein pertsona izan daiteke eragile bideratzailea, hau da, edonork bidal dezake kasu bat bitartekaritza-zerbitzura eta, horregatik, hedapena funtsezkoa da, behin bitartekaritza-zerbitzua abian jarrita, bere erabilpena sustatzeko.

Hedapen-kanpainari ekiteko unerik onena bitartekari-taldearen trebakuntza amaitzean izaten da, izan ere, zerbitzuaren hasiera hurbil baitago.

Ikastetxeko kolektibo guztiak dira hedapen-prozesu honen hartzaileak: ikasleak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, familiak eta ordezkapen organo gorenak.

Hedapena burutzeko, talde koordinatzaileak informatzeko hainbat material prestatu behar ditu (triptikoak, gutunak, kartelak, berriak, etab.). Guztiengana iristeko modurik onena ikastetxeko ohiko bideak erabiltzea izaten da (komunikatuak, eskolako aldizkaria, web gunea, tutoretzak, bilerak,...) eta, aldi berean, hartzaileen arreta bereganatuko duten estrategia orijinal eta sormenezkoak garatzea (dramatizazioak, bideoak, esloganak, bitartekarien koadroa, etab.).

Landu daitezkeen ekintza jakin batuk hauek dira:

- Informazio-triptiko bat egin bitartekaritza-programaz eta bere funtzionamenduaz; triptiko hau eskola-komunitateko partaide guztiei banatuko zaie.

- Hainbat kartel egin eta ikastetxeko leku estrategikoetan jarri.
- Bitartekari-taldea aurkeztu ikasgela bakoitzean.
- Informazio-gutun bat prestatu eta familia guztiei bidali.
- Informazio-hitzaldi bat egin. Kolektibo guztiei zuzendua izan daiteke eta elkarrekin egin, edota banaka, hau da, hitzaldi bat familientzat, beste bat irakasleentzat...
- Programaren inguruko informazioa jasotzen duen dokumentazioa zintzilikatu ikastetxeko web gunean.

3.6. Bitartekaritza-zerbitzuaren antolaketa.

Bitartekaritza-zerbitzua abian jarri ahal izango da, derrigorrez kontuan izan beharreko hainbat alderdi antolatu eta prestatu direnean.

Espazioa edo bitartekaritza-gela.

Espazio lasaia eta atsegina izan dadila gomendatzen da, etenik izango ez den tokia eta bitartekaritza egiten ari den bitartean beste jarduerarik egingo ez dena. Gelak mahai bat izan behar du, ahal izanez gero borobila, eta lau aulki. Erabiliko diren inprimaki guztien kopiak ere behar dira eta artxibategi bat horiek artxibatzeke.

Ordutegia.

Komenigarria da bitartekaritzek ahalik eta gutxien eragitea eskola ordutegiari, baina ezin diegu eskatu ikasle bitartekariei euren denbora librearen zati garrantzitsu bat eskaintzeko bitartekaritzari. Horregatik,

onartu egin behar da, bigarren hezkuntzan batez ere, bitartekaritza egiteko zereginak eskolaren batera joan ezin izatea ekartzen diela, bai bitartekariei eta bai aldeei.

Dokumentazioa.

Bitartekaritza-programak hainbat dokumentu egitea eta erregistratzeko antolatzea eskatzen du. Ezinbesteko dokumentuak honako hauek dira:

- Bideratzeko inprimakia edo bitartekaritza-eskaerakoa.
- Akordioaren inprimakia.
- Bitartekaritza-saioari buruzko ebaluazio-galdetegia.
- Bitartekaritzaren azken txostena.
- Jarraipen-inprimakia.

Txandak.

Bitartekari-taldearen jarduera antolatzeko ikasle bitartekarien txandak antolatuko dira. Antolaketa hau aldatu egingo da "eredu bideratua" edo "jolaslekuko eredia" izan. Lehen hezkuntzan bi ereduak erabiltzen dira aldi berean, baina bigarren hezkuntzan "eredu bideratua" soilik. "Jolaslekuko eredia"rekin bitartekari-bikoteak banatu egingo dira ikastetxeko atsedeen-espazio kopuruaren eta ikasle kopuruaren arabera. Txandak egunerokoak edo asterokoak izan daitezke, eta goiz erdiko atsedena eta jangela garaiko tartea hartzen dute. "Eredua bideratu"an ez da beharrezkoa txanda zehatzak izendatzea, nahiz eta egin daitekeen horrela ere. Txanda antolaturik ez dagoenean, talde koordinatzailea bitartekari-taldeko kideak izendatzen joango da kasu bakoitzerako, hainbat

irizpide aintzat hartuta: generoa, adina, burututako bitartekaritza kopurua, etab.

Bitartekaritza-zerbitzuaren funtzionamenduak, "**eredu bideratua**" denean, hainbat jarduera-fase ditu:

1. Bideratzea edo eskaera.

Prozesua hasiko da eskola komunitateko edonork gatazka baten berri izan eta kasua bitartekaritza-programara bideratzen duenean. Prozesuari ekiteko beste modu bat gatazkako aldeetako batek eskaera egitea da edota bitartekari edo koordinatzaile batek bitartekaritzarako aukera eskaintzea gatazka bat antzematean.

Hasierako pauso honek eskatzen du bideratzen edo eskaera egiten duenak inprimaki labur bat betetzea gatazkaren oinarrizko datuekin.

2. Kasuaren harrera.

Bideratzea edo eskaera talde koordinatzaileak jasoko du eta, bildutako oinarrizko informazioarekin, lehen balorazioa egingo du kasua bitartekaritzara egokitzen ote den. Saihestu egin nahi da prozesua hastea bitartekaritza egin ezin den kasu nabarmena baldin bada, esate baterako, ikaskideen arteko tratua txarren egoera.

Talde koordinatzaileak uste badu, hasiera batean, bitartekaritzaren bidez bideratzeko modukoa dela, bitartekariak izendatuko ditu kasurako, eta hurrengo aurre-bitartekaritza faseari ekingo dio. Normalean, eskola arloan, bitartekaritza-kidetza praktikatzen da, hau da, bi bitartekariak elkarrekin jarduten dute. Koordinatzaileen iritziz kasua bitartekaritza egiteko modukoa ez bada, beste esku hartze bat proposatuko du.

3. Aurre-bitartekaritza.

Izendatutako bitartekariak bakarkako elkarrizketa egingo dute alde bakoitzarekin. Elkarrizketa honetan, gatazkari buruzko informazioa jasoko da, aldeei bitartekaritzaren ezaugarriak eta funtzionamendua azalduko zaizkie, bitartekaritzarako duten jarrera baloratuko da eta bitartekaritzarako ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatuko da.

Bitartekaritza onartzen bada, garrantzitsua da ziurtatzea aldeek onartzen eta legitimatzen dituztela hasieran izendatutako bitartekariak. Aldeetako bat edo biak ez badaude bitartekaritzarako prest, prozesua eten egingo da puntu honetan, eta beste instantzia edo esku hartze batera bideratuko da.

4. Bitartekaritza-saioaren prestaketa.

Talde koordinatzaileak eta kasurako izendatutako bitartekariak bitartekaritzarako unea eta tokia antolatuko dituzte, eta aldeei hitzordua emango diete. Saioa eskola orduetan planifikatzen bada, dagokion irakaslearen oniritzia beharko da.

Normalean, bitartekaritza-saioa aurre-bitartekaritzako elkarrizketa egin eta bizpahiru egunera egiten da.

5. Bitartekaritza-saioa.

Eskola arloan, bitartekaritza saio bakar batean egiten da. Prozesu egituratua da eta hainbat fase ditu: a) bitartekariaren irekiera, b) aldeen hasierako diskurtsoa, c) arazoa trukatu edo argitu, d) irtenbideak bilatu eta hautatu e) akordioa egin.

Bitartekaritza ongi bukatuz gero, akordioa idatziz jasoko da, aldeek eta bitartekariak sinatu eta kopia bana emango zaie aldeei eta beste bat artxibatuta geratuko da.

Behin saioa amaituta, bitartekariak ebaluatu egingo dute (emaitza, bitartekariaren jarduera...) eta prozesuaren txostena osatuko dute. Prozesuan zehar sortutako dokumentu guztiak artxibatuta geratuko dira.

6. Jarraipena.

Bitartekaritza amaitu eta denbora bat igarotakoan, normalean aste bat edo bi, bitartekariak berriro aldeekin harremanetan jarriko dira, akordioaren jarraipena egiteko eta betetzen ari dela egiaztatzeko. Akordioa bete ezean edo arazoren bat izanez gero, laguntza

eskain diezaiekete aldeei. Era berean, jarraipenaren emaitza dokumentuetan jasoko da.

Lehen hezkuntzan, "jolaslekuko eredu" rekin, bitartekaritzak beste funtzionamendu bat du. Jolastokian "zerbitzuan" dauden bitartekariak identifikatuko dituen jantzi bat eramaten dute (zapia, banda bat besoan,...). Besteek bezala gozatzen dute atsedenaldira, baina ikasleren batek jo dezake beraiengana momentu horretan bertan bitartekaritza egiteko. Bitartekariak eurek ere eskain diezaiekete laguntza ikaskideei, gatazkaren bat antzemanaz gero.

Esku hartzea amaitzean, bitartekaritzaren txosten labur bat jasotzen duen inprimakia bete eta artxibatu egingo dute.

3.7. Koordinazioa eta jarraipena.

Bitartekaritza-programaren aldizkako jarraipena funtsezkoa da bere funtzionamendu egokirako eta iraupenerako.

Tartekako jarraipen-topaketetan, normalean hamabost egunean behin, bilera bat egiten da; bertan, talde koordinatzaileko pertsona batek edo bik eta bitartekarien taldeak hartzen dute parte.

Jarraipen honen helburua da informazioa eta esperientziak partekatzea programaren arrakasta eta praktika egokien inguruan, eta topatutako arazo eta zailtasunen eta balizko irtenbideen inguruan (logistika, prozedurak, kasuak, etab.).

Gainera, jarraipenak aukera emango du bitartekari-taldearen kohesioa eta programarekiko konpromisoa bultzatzeko,

bitartekaritza-kasu konplexuenak eta bitartekarien jarduera aztertzeke, bitartekari-taldeari trebakuntza gehigarria emateko, behar izanez gero, eta programaren praktikaren ebaluazio jarraitua egiteko, honek hobekuntzak eta zuzenketak arin sartzeko aukera emango duelarik.

Jarraipen-bilerak antolatzeari begira, komenigarria da alderdi hauek aintzat hartzea:

- Bilerak 1,30 edo 2 orduko iraupena izango du eta bi astean behin egingo da.
- Bilerak beste jarduera batzuekin (irteerak edo ospakizunak) bat ez egiteko moduan planifikatu.
- Aurrez jakinarazi irakasle guztiei, beren eskolak jarraipen-bilerarekin bat egiten

dutenean, eta beren ikasleek parte hartzen dutenean.

- Talde koordinatzaileko kide diren irakasleen ordezkapenak antolatu, jarraipen-bilerak daudenean.
- Espazio zabal, eroso eta lasaia aukeratu bilerarako (liburutegia, balio anitzeko gela...), distrakzioak eta etenak saihesteko. Lekuak guztiak borobilean esertzeko bezain zabala izan behar du.
- Hamabosteroko jarraipen-bilera antolatzeko eta garatzeko arduraduna, derrigorrez, talde koordinatzaileko kide bat izango da. Pertsona berbera izan daiteke bilera guztietan, edota talde koordinatzailekoen artean txandakatu ardura hau, bilera bakoitza haietako batek antolatuz. Bileraren antolatzaileak beharrezkotzat jotzen badu, beste irakasle baten, aditu baten edo ikasle

baten laguntza eska dezake.

- Bilerarako behar diren dokumentuak eta materialak eskuratu eta prestatu.

Bileretako dinamizatzailea errazten duen agentea da, gogo bizia, energia eta giro ona eskainiko duena parte hartzaileen artean. Ez du hartu behar irakaslearen rol tradizionala, eta bitartekari-taldeak ere ez du bera halakotzat hartu behar.

Moderatzailearen betebeharra partaideei lanean laguntzea da, ez bideratzea. Jarraipen-bilera hauek emankorrak izateko, moderatzaileak egitura antolatua eskainiko du, guztiak entzunak eta errespetatuak izateko, parte hartzea bultzatuz eta indartuz. Rol hau indartzeko, hona hemen hainbat iradokizun:

- Borobilean esertzea komunikazio irekia bultzatzeko.
- "Lider" modura ikusiko ez duten toki batean esertzea. Bilera bakoitzean lekuz aldatzeak inpresio hau ez sortzen laguntzen du.
- Ikasle bitartekariak diotena baloratu, eta nahiz eta komentarioren bat desagokia iruditu, ez epaitu. Kasu horretan, eskertu ikasleari bere ekarpena eta bilerarekin jarraitu.
- Ikasleak goraiatu eta parte hartzera animatu. Gutxi batzuk monopolizatzen badute elkarrizketa, besteei galdetu ea zerbait gehitu nahi duten. Baina ez da inor presionatu behar hitz egiteko, ez duela egin nahi ematen badu.
- Ikasleei ardurak eman (bilera-deialdia egiten lagundu, gaien agenda prestatzen lagundu, bilerako arauak ezarri,

dokumentuen erregistroaz arduratu, etab.).

Bilerak antolatzeko eta zuzentzeko prozedura bat honako hau izan daiteke:

- 1. Lehendabiziko bileran, bilerak lasai eta errespetuz egitea erraztuko duten oinarrizko arauak ezartzeko eskatuko zaie ikasleei. Hauek izan daitezke batzuk: ez eten, eskua jaso hizketarako txanda eskatzeko, eta moderatzailearen baimenaren zain egon, errespetuz hitz egin eta bileran hitz egindako guztia isilpean gorde.
- 2. Bileraren aurretik, moderatzaileak gai-zerrendaren proposamena egingo du. Denbora-tarte bat utzi behar du taldeak beste gai batzuk gehitu ahal izateko. Moderatzaileak bileraren lekua, data

eta ordua jarriko du, eta parte-hartzaile guztiei jakinaraziko die.

- 3. Bilera hastean, gai-zerrenda batera jarriko da taldeak gainbegira dezan eta beste punturen bat erants dezan, nahi izanez gero. Gai bakoitzari eskaini beharreko denbora ere berrikusiko da.
- 4. Bileran zehar, moderatzaileak animatu egingo ditu ikasleak euren lorpenak edo arrakastak partekatzera, adibidez, irakasle batek zoriondu izana atsedean orduan egindako bitartekaritza batengatik, edota gatazka zail bat egoki konpondu izana. Sor daitezkeen arazo edo zailtasunak ere aztertuko dira, esate baterako, erregistro-formularioak zuzen betetzea, edota ebatzi gabeko gatazkak berrikustea.
- 5. Moderatzaileak ahaleginak egin behar ditu bilera arina eta atsegina izan

dadin, ikasleak ez aspertzeko. Gainera, saiatuko da beraiek izan daitezen elkarrizketaren protagonista denborarik gehienez.

- 6. Bilera bakoitzean denbora bat utziko da programaren funtzionamendua ebaluatzeko eta balizko aldaketak erabakitzeko. Bileraren amaieran, minutu batzuk erabiliko dira bilera bera ere ebaluatzeko.
- 7. Bitartekaritza-programa bilakatzen eta hedatzen doan heinean, jarraipen-bileretan jarduerak sartuko dira bitartekarien hasierako trebakuntza sendotzeko, teknika eta trebetasun berriak eskuratzeko, eta ikasle bitartekariak eurek ideiak eta ikuspuntu berriak botatzeko bitartekaritza-zereginean topatzen dituzten zailtasunei buruz.

3.8. Ebaluazioa.

Bitartekaritza-programaren ebaluazioa alderdi giltzarria da hobetzeko eta hedatzeko, hau da, bere iraunkortasuna denboran eta bere funtzionamenduaren kalitatea bermatzeko. Ebaluatzeak erabaki hobeak hartzen laguntzen du, eta behar bezala funtzionatzen ari ez diren bitartekaritza-programaren alderdiak doitzen.

Hasiera batean, ebaluazioa hasieran ezarritako helburuetara eta bitartekaritza-programaren garapenerako definitutako prozesuetara doitu beharko da.

Kontuan hartu beharreko elementu ugari daude ikaskideen arteko bitartekaritza-programa bat ebaluatzeko garaian:

- 1. Hasieran ezarritako programaren helburuen lorpena.

- 2. Bitartekari-taldearen trebakuntza.
- 3. Bitartekarien jarduera bitartekaritza-saioetan.
- 4. Programa-erabiltzaileen asebetetasuna.
- 5. Bitartekaritza-programaren emaitzak (bitartekaritza erabilitako kasu kopurua, lortutako akordio kopurua, akordioak bete diren, etab.).
- 6. Jarraipen-bileren funtzionamendua.
- 7. Hezkuntza-komunitateko kolektibo desberdinen ezagutza eta pertzepzioa bitartekaritza-programaren inguruan.

Programaren ebaluazioa egiteko, hainbat tresna erabil daitezke, informazio garrantzitsua emango dutelarik:

- Programan inplikaturako kolektiboen "eztabaida-taldeak" edo talde-bilerak.
- Pilatutako datuen erregistroaren berrikusketa.
- Galdetegiak.
- Iradokizun-postontzia programaren funtzionamenduari buruz.

Amaitzeko, bitartekaritza-programaren urteko memoria egingo da, bertan inplikaturako guztien parte-hartzearekin. Memoria honetan, zera jasoko da: burututako ekintzak, erabilitako ebaluazio-tresna desberdinekin lortutako emaitzak eta sartu beharreko hobekuntza-proposamenak, behar balitz.



GEHIAGO JAKITEKO BALIABIDEAK.

Bibliografia

BOQUE, M.C. (2002). *Guía de mediación escolar*. Barcelona. Rosa Sensat.

BOQUÉ, M.C. (2005). *Tiempo de mediación. Taller de formación de mediadores y mediadoras en el ámbito educativo*. Barcelona. CEAC.

BRANDONI, F. (compiladora), (1999). *Mediación Escolar. Propuestas, reflexiones y experiencias*. Buenos Aires. Ed. Paidós.

CARMELO, J. et. al. (2000). *Mediación de conflictos en Instituciones Educativas: manual para la formación de mediadores*. Madrid. Narcea.

CASAMAYOR, G. (Coord.) et al. (1998). *Cómo dar respuesta a los conflictos. La disciplina de la enseñanza secundaria*. Barcelona. Grao.

MUNNÉ, M.; MAC-CRAGH, P. (2006). *Los 10 principios de la cultura de mediación*. Barcelona: Grao.

ORTEGA, R.; DEL REY, R. y GÓMEZ, P. (2002). *Estrategias educativas para la prevención de la violencia: Mediación y diálogo*. Madrid. Cruz Roja Juventud.

SAN MARTIN, J.A. (2003). *La mediación escolar: un camino para la gestión del conflicto escolar*. CCS,

TORREGO, J.C. (2001). *Mediación de conflictos en Instituciones Educativas. Manual para la formación de mediadores*. 2.^a ed. Madrid. Ed. Narcea.

VIDAL DI LORENZO, E. (2007). *Mediación escolar. Una herramienta para resolver conflictos y una estrategia para prevenirlo*. Editorial Dunken

Web guneak

http://ntic.educacion.es/v5/web/profesores/orientacion_educativa/convivencia/

<http://www.concejoeducativo.org>

<http://www.cuzrojajuventud.org>

<http://www.educastur.princast.es/proyectos/mediacion/>

<http://convivencia.wordpress.com/>

<http://www.juntadeandalucia.es/averroes/>

<http://www.eskolabakegune.euskadi.net/>



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

